

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI)

Albisteak

## Iritsi dira fakultatera udaberriko Erasmus+ programako atzerriko ikasleak

2016/02/18

Iritsi dira Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatera 2015-2016 ikasturteko udaberriko Erasmus+ ikasleak. Ikasturteko bigarren txanda honetan 7 ikasle etorri dira; horietatik 6 Hezkuntza programara eta zazpigarrena Komunikazio programara.

Suitza, Belgika, Polonia eta Herbehereetatik etorritako ikasle horiek guztiak etorri dira ikastera Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eskaintzen dituen bi nazioarteko programetan: Hezkuntzako Nazioarteko programa (Teacher Education. International programme. Spring) eta Komunikazio programa (Media and Comunciations. Internationa programme).

Ongi etorri Annemijn Mennink, Samantha Van Der Wal, Fieke Peleman, Marie-Lou de Maeseneire, Amaia Giger, Agnieszka Bartlomiejczak eta Dagmara Kusyk!



Erasmus+ programako ikasleak Eskoriatzako campusean.